

# PICO DEL FRAILE

## FRAILEA HAITZA

Gorobel edo Sálvada mendilerroa, Araba eta Burgos arteko mugan kokatutako mendilerroa da. Iparraldean Arrastaria bailararen gainetik 600 metroko amildegia altxatzen da, horma menderaezinaren itxura emanez. Hegoaldean aldiz, Burgosko baso eta zelaiekin aldapa leuna osatuz bat egiten du.

Kondairak dioenez, mendilerro honetan, Txarlazoko gailurraren azpian herensuge erraldoi bat bizi zen, ardi-esnez eta bidean topatzen zituen gizakien haragiz elikatzen zena. Herensugea bizi zen lekutik gertu, "Koba haundi" izeneko haitzuloan, Marik bizilekua omen du.

Gorobel mendilerroan, Tertangako zirkutik zintzilik, Arrastaria haranera otoitzean ari den harrizko fraide erraldoi bat dago. "Frailea haitza" izeneko monolito ikusgarri honen otoitzak Arrastaria haranean zabaltzen dira, udazkeneo ihintza zelaietan zabaltzen den moduan. Otoitz hauek erakarrita, 1924ko martxoaren

### TESTU ETA ARGAZKIAK



Xabi Mujika "Smithy"

Batzuetan erizaina, zenbaitetan dietista eta noizean behin eskalatzea eta mendian korrika egitea gustuko duen mendizalea. Ipurterrea, ohiko bideetatik ihesi eta Euskal Herriko mendietara ezohiko bideak aurkitzen saiatzen dena, Aralar eta Aizkorriin batez ere. Hala ere, aukera duen bakoitzean Pirinioetara ihes egiten du bertako mendiei bisita egiteko.



16an, Club Deportivo Bilbao Elkarteko Angel Sopena Oruetak monolito hau lehen aldiz eskalatu zuen, monolito honen Euskal Herriko lehen eskalada sinatuz.

## Club Deportivo Bilbao Elkarteko Angel Sopena Oruetak monolito hau lehen aldiz eskalatu zuen, monolito honen Euskal Herriko lehen eskalada sinatuz

Sopenak berak igoera honela kontatu zuen: *"Las gentes de la montaña hablan del Fraile y lo frecuentan con asiduidad, esto llegó a alarmarme y me temí que otra bandera que no fuera la del glorioso Club Deportivo tomara posesión en su cima. Y con este ánimo me encaminé el 16 de Marzo de 1924, hacia la base del coloso. El domingo anterior fui a verlo, ahora ha sido más íntimo. Dejo mi mochila en su base sudoeste, junto a un arbusto de avellano. Escojo mi herramienta; un martillo, unos clavos, palanqueta de varilla de acero de mi inventiva. Me sitúo fácilmente en el vértice en que arranca el pico, comienzo el tanteo y veo como se*



Angel Sopena. Argazkia Cesar Estormesen blogetik hartua

Arrastaria bailararen zaindari

*desgaja toda la Peña Muerta. Llego a un resalte vertical donde hallo apoyo para auparme. Regreso al vértice en busca de los clavos y vuelvo con ellos al punto alcanzado, uno se rompe y el otro lo afianzo dudosamente. Pero me apañó y subo el escalón. Sigue el trabajo de zapa y desescombros, llego donde se halla la mayor oquedad, que se señala en el cordón que surca vertical a una grieta. Lo que los técnicos alpinistas llaman chimenea. Este es un punto capital por la dificultad que entraña para salvar la convexidad del reborde de la hendidura. Me descalzo y vuelvo al ataque, con varias tentativas frustradas, veo que en la cornisa de la sierra hay gente que me observa, no me quitan ojo, tienen una actitud expectante que me da nuevas fuerzas. Me aseguro los precarios apoyos y limpio la carcoma de la roca. Las piedras caen al vacío y es muy peligroso, cualquier imprudencia puede ser de fatales consecuencias. Tras unos pocos esfuerzos, a pocos metros veo el trozo de hierba, trepo ligeramente y estoy en la muesca que separa la capucha del Fraile, desde donde se aprecia el corte vertical. Un poco de cuidado para dominar el pelado cascarón de la "Chinostra" y humillar la cerviz del ciclópeo gigante. Lanzo tres vigorosos hurras, que se mezclan con los vítores de loco entusiasmo de los hasta hace poco mudos espectadores. Diez minutos permanecí en la cima, en una cajita de zinc deposité una tarjeta del concurso de montes del Club Deportivo de Bilbao. Veremos como resuelvo el descenso, antes de abandonar la cima corto un ramito de un solitario mato de enebro. Desciendo fácilmente a la zona de hierba y de esta roca para tomar el camino de vuelta, pero ofrece serias dificultades. Tras una*

Gorobel mendilerroa: Frailea haitza, "Ohiko bidea", 50m, III+



Krokisa

*acción laboriosa, consigo deslizarme y llegar a la concavidad antes señalada por cuya ranura me descuelgo con gran trabajo donde dejo los borceguies. Para evitar estorbos, los tiro al camino de Tertanga y lo recogen mis providenciales espectadores. El secreto del éxito de esta escalada, ha consistido en la serena reflexión que ha guiado cada uno de mis mayores movimientos y el caudal de energías que gracias a Dios, no me han faltado. Por ello considero un honor lo logrado por el alpinismo vizcaíno. ¡Gloria a Dios en las alturas!*

Eskalada honek sekulako zalaparta sortu zuen Club Deportivo Bilbao Elkartean. Sopeña Bilbora itzuli zenean, jende artean zuzendaritza gelara abiatu eta zuzendariari iogoera eskaini zion, hurrengo hitzen bidez: "En nombre del Club Deportivo subí ayer al Pico del Fraile". Urte

bereko uztailean, eskalada honengatik Sopeñak Elkartearen urrezko domina jasoko zuen.

Bilbon izandako zalapartaren oihartzuna Urduña herriraino iritsi zen. Eskalada honi emandako garrantzia hain handia izan zen, mendiari *Sopeña haitza* izena ere eman zitzaioela.

1955ean, zailtasun handiko lehen eskalada iritsiko zen, Pedro Udaondo eta Arturo Fernandezek eskutik. Frailea haitzaren hego-ekialdeko horma eskalatu zuten, Frailearen buruak osatzen duen sabaia A3 zailtasuneko luze batean igo, frailearen aurpegi berbera eskalatu eta gailurrera iritsiz. 1953an, Pyrenaica aldizkariak Juan San Martinek Frailea haitzaren inguruan idatzitako kronika eta krokisa argitaratu zituen. Urteetan zehar, kronika hau eta Sopeñak 1924an egindako balentria izango

ziren Frailea haitzaren inguruan argitaraturiko artikulu bakarrak.

Frailea haitzeko lehen argazkia nerabezaroan ikusi nuen, Miguel Anguloren "la montaña vasca" liburuan hain zuzen ere. Argazkiaren oina irakurri eta Frailea haitza izena zuela irakurtzearekin batera zera pentsatu nuen: "itzela izango litzateke egunen batean mendi hau igotzea".

Zaila da horrelako ikusmirak sortarazten duen zirrarak ihes egitea, horma bertikalek osatutako aldarean makurturik, bailarako biztanleen joan etorrien testigu isila irudituz

Urte batzuk beranduago, 1953ko Pyrenaica nire eskuetara iritsi eta Juan San Martinek mendi honen igoserari buruz idatzitako kronika irakurri nuenean, burutapen bat izan nuen: 60 urte ondoren Pyrenaica aldizkarian artikulu bat idatzi eta krokis eguneratu bat ipiniz, mendi honi buruzko zirkulua ixten badut?

2018ko azaroan, Orduñako mendateko aparkalekuan kotxetik jaitsi ginenean, haizea arropako zirrikuetatik lotsagabe sartu eta gorputzeko tenperatura jaisten hasi zen. Eskaladako material guztia hartu, motxiletan sartu, eta haizearen eraginez uzkurturnik, Txarlazora doan pista hartu genuen. Pista utzi eta Tertangatik datorren bidearekin bat eginez, Burgostik Arabara eta haizearekiko babesera pasa ginenean, Frailea haitza bere

Frailea haitzeko postontzia, iragana eta oraina argazki berean







Lehen bilgunea osatzen duen uztaidun parabolta eta honen eskuineko iltzetik pasatutako express-zintaren atzeko zatia

osotasunean agertu zitzaigun. Zaila da horrelako ikusmirak sortarazten duen zirrarak ihes egitea, horma bertikalek osatutako aldarean makurtua, bailarako biztanleen joan etorrien testigu isila dela irudituz. Pago zahar baten ondotik pasatu eta zelaia aldapatsu bat zeharkatuz, Frailea haitzaren mendebaldeko lepora zuzendu ginen. II. mailako zailtasuneko harkaitz-plakatxo inklinatu bat eskalatu ondoren, lepora iritsi eta bertan sokak atera, eta Asier zoruan bi paraboltez osatutako bilgunera lotu zenean, eskalatzeari ekin nion.

- **Lehenengo luzea, 13 metro, III.** Lehenengo luzeak fraidearen bizkarrezurra jarraitzen du, ornoen moduan, koska ezberdinez apaindutako hormatxo bertikal batzuk eskainiz. Luzea, lepotik 8 metro ingurura harkaitzean sartutako iltze oker, herdoil eta bakarti batez babesten da. Haizearengandik nolabait babesteko, lehenengo metroetan ertzaren ezkerre-ra pasa eta metroak pixkanaka eskalatu hasi nintzen hormatxo bertikal batekin topo egin arte (II). Arrail batean *friend* bat sendo trabatuz, eskuinera bota eta ertzetik eskalatzen jarraitu nuen, hormatxoaren gaineko erlaitzera

igo eta iltze zaharrera iritsiz (III). Iltzetik gorako bigarren hormatxo bertikala ertzetik eskalatu jarraitu nuen (III), haizeak edozein momentuan hormatik botako ninduenaren beldurrez. Tentsio-unea izan zen, harkaitzak, grabitateak eta haizearen aurkako borrokak sortutako urduritasunaren eraginez. Bigarren luzeko tximinia-aren azpiko bilgunean lotu arte ez nintzen lasaitu (uztaidun parabolta bakarrez osatua).

- **Bigarren luzea, 25 metro, III+.** Asier tximiniaren bamera sartu eta, oinak non jarri ongi begiratu, haizearen kontra gorputza kontu handiz altxatu zuen, bilgunetik 2-3 metro ingurura dagoen erlaitz erosora igo eta bertako iltze zaharrean lotuz (III+). Erlaitzetik gora metro pare bat eskalatu, eta harkaitz batzuek osatutako arrail batean *friend* bat trabatu ondoren, bigarren bilgunera arte luzatzen den zelaia inklinatura igo zen (III). Fraidearen kapa osatzen duen zelaia hasierako metroetan tentea da, nahiz eta metroak irabazi ahala inklinazioa galduz doan. Haizeak etengabe orraztutako belar luzei tira eginez, metroak pixkanaka irabazi zituen, erdi-oinetz ibilitako azken metroen ondoren, soka batez lotutako uztaidun bi paraboltez osatutako bilgunera iritsi zen arte.

- **Hirugarren luzea, 12 metro, II+.** Luzea bilgunetik eskuinera oinez metro batzuk eginez hasten da, Frailea haitzaren gailurraurre eta gailurrak osatzen duten lepo estura iritsiz. Bertan, haizeak gogoz jotzen zuen. Eskuak



igurtzi, astindu eta berotasun faltsu bat sentitzen hasi nintzenean eskalatzen jarraitu nuen.

Eskaladaren azken metroak II+ zailtasuneko harkaitz-plaka inklinatu bat eskalatu burutzen dira. Haizeak bertatik botako ninduen beldurrez, gelditu gabe eta aseguru jarri gabe eskalatu nuen, bilgunera iritsi nintzen arte (kate batez lotutako uztaidun bi parabolte). Bilgunea atzean utzi eta fraidearen burugainak osatzen duen lautadaxora iritsi nintzenean, alderik alde zeharkatu eta, postontzitik gertu kokaturik harkaitz batean sartutako paraboltean azken bilgunea prestatu nuen.

Haizea unetik unera indartuz zihoa eta oraindik jaitsi beharra genuen. Gailurrean egon ginen une laburrari ahalik eta zuku handiena atera nahi izan genion, Sopeñari gertatu bezala, Tertangako bidetik gora zihoa mendizale batzuen begiradapean. A zer nolako meritua Sopeñarena!

Jaitsiera bi rappelen bidez egin genuen, bigarren rappela lepora iristen den II. mailako zailtasuneko plakatxo inklinatuaren oinera arte luzatuz. Askok pentsatuko dute 50 metro eskalatzeko ordu eta erdiko bidaiak ez duela merezi. Mendi honetako metro bakoitzean Euskal Herriko eskaladaren lehen pausuen historia bizitzeko aukera dago. Batzuetan aurrera egin aurretik gelditu eta jatorriaren iturritik edan behar da egiten dugun horri zentzua emateko. Eta hori da mendi honetako igoerak eskaintzen

duen altxorrik preziatuena, jatorriaren iturritik edateko aukera alegia. Honengatik guztiagatik, Juan San Martinek idatzitako kronikaz gain, Pyrenaicak eskalada honi buruzko artikulua eguneratu bat izatea merezi zuela pentsatuz, aldizkari honekin zor bat nuela sentitu nuen. Espero dut artikulua hau zor horrek merezi duen behar adinako ordaina izatea.

### DATU TEKNIKOAK

- **LUZERA:** 50 metro.
- **LUZE KOPURUA:** Hiru luze ditu, eta guztiak bakarrean eskalatu daitezke.
- **NORK IREKIA:** Angel Sopeña, 1924ko martxoaren 16an.
- **ZAILTASUNA:** III+.
- **ORIENTAZIOA:** mendebaldea.
- **URA:** Urduña edo Tertanga herrietan hartu daiteke.
- **HURBILKETA:** Urduñako mendateko aparkalekutik ipar mendebaldeko noranzkoan doan pista nabarmena jarraituko dugu 3,2 kilometro. Pista utzi eta honen eskuinean (ibilbidearen noranzkoan) arantzadun alanbreaz osatutako hesia zeharkatzeko aukera ematen duen ate birakartik pasako gara, Tertanga herritik datorren bidearekin bat eginez. Metro batzuk bidean behera egin, 30-35° inguruko malda duen zelaia zeharkatu eta Frailea haitzaren mendebaldeko lepora iritsiko gara. Lepora iristeko II. mailako zailtasuna duen hormatxo inklinatu bat eskalatu beharko dugu. Kotxetik eskalada hasten den lekura 45-50 minutu inguru pasako ditugu.



Bigarren bilgunea

- **JAITSIERA:** Gailurretik lepora 40 metroetako rappel bat eginez jaisten da. Hala ere, tartean bi bilgune dauenez, rappel motzagoak ere egin daitezke. Lepotik aparkalekura igoerako bide bera jarraituko dugu.

- **ERAMAN BEHARREKO MATERIALA:** Bidean jarritako materiala urria da: iltze bakarra lehen luzean, bi iltze bigarrean eta iltzerik ez azkenengoan. Bilgune guztiak aldiz, uztaidun parabolte osatuak daude. 30 metroko bi soka, luzera ezberdineko 6 zinta express, bilguneak muntatzeko zinta-uztai bana eta friend joko batekin nahikoa izango dugu.

- **BIDEA ESKALATZEKO PASATAKO DENBORA:** Hiru luzeetan eskalatu hogeita bost minutu.

- **OHARRA:** Mendi honetako eskaladaren araudia-ri dagokionez, eta 2008ko ekainak 2ko Arabako aldizkari ofizialaren arabera, irailaren 1 arte Frailea haitzean eskalada debekatua dago.

